



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE



Hezkuntza eta Kirol
Fakultatea

LANGILE BERRIENTZAKO HARRERA -GIDA

<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-eta-kirol-fakultatea>

ONGI ETORRI,

Ikastetxeko zuzendaritza-taldetik,
gure adeitasunik handiena ematen
dizugu Hezkuntza eta Kirol
Fakultatera ongietorria.

Gida hau prestatu dugu, helburu
honekin:Fakultatean sartzea.

Edozein iruzkin bazenu
hobetzen laguntzeko
dokumentu hau Fakultatearen
webguneko iradokizun-
postontziaren bidez helaraz
diezagukezu.

Lagungarri izango zaizulakoan
gaude.



Dekanotzaren taldeak ongi etorria ematen dizu Hezkuntza eta Kirol Fakultatera. Gida hau osatu dugu zure fakultatean hasteko lagungarri izango duzulakoan; espero dugu, bada, horrela izatea.

Bertan bildu ditugun edukiak hasiera hori errazteko bide izango direlakoan prestatu ditugu:

- Irakasle-ikertzaileek (IRI) irakaskuntza eta/edo ikerketa lana egiten dute.
- Teknikariek eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetaiko langileek (TEKAZEL) kudeaketa eta administrazio lanak egiten dituzte, eta arlo horretako laguntza ematen dute.

Gida honen helburu bakarra laguntza tresna izatea da, eta, beraz, bertan, fakultateari buruzko oinarritzko informazioa eta esteka interesgarriak aurkituko dituzu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu UPV/EHUko Letren Fakultatekoei, eurek egindakoa utzi baitigute geurea egiteko.

Gasteiz, 2025eko ekainaren 4an

2026ko ekainaren 29an berrikusi eta eguneratua



AURKIBIDEA

1. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)	6
1.1 Gobernu eta ordezkaritza organoak	6
a. Gobernu taldea	6
b. Gobernu Kontseilua	7
c. Klaustroa	7
2. Arabako Campusa	8
2.1 Campuseko organo orokorrak	8
a. Errektoreordetzako zuzendaritza taldea	8
b. Campuseko Batzarra	8
2.2 Campuseko instalazioak eta zerbitzuak	9
a. Errektoreordetza	9
b. Elurreta eraikina	9
c. Unibertsitate Pabiloia	9
d. Lascaray Ikerunea	10
e. Micaela Portilla Ikerunea	10
f. Tomás Alfaro Fournier Resa Unibertsitate Egoitza	10
3. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	11
3.1 Oinarrizko informazioa	11
a. Kokapena	11
b. Orduetgia	12
3.2 Graduak eta Graduondoko Ikasketak	12
3.3 Instalazioak	13
3.4 Ikastegiaren antolamendua	14
3.5 Bestelako datu interesgarri batzuk	15
a. Kalitatearen kudeaketa	15
b. Xedea, ikuspegia eta balioak	15
1. Xedea:	15
2. Ikuspegia:	17
3. Balioak:	17
4. IRI, Ikertzaileak eta TEKAZE Lantzeko informazioa eta zerbitzu orokorrak	18
4.1 INFORMAZIO OROKORRA	18
a. Telefono luzapen garrantzitsuak (*)	18
b. Fakultatearen logotipoa	18
4.2 UPV/EHUko zerbitzuak	19
a. Unibertsitateko sarera urrunetik sartzeko bidea	19
b. Gizarte laguntzak	19
c. Biblioteka	19
d. Bilatu	19
e. Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzua (EAZ)	20
f. Posta elektronikoa	20
g. LDAP kontua	20
h. Sinadura digitala eta akten argitaratzea	20
i. Zerbitzu ordainak	23
j.- Baimenak	24
k. Komunikazio Bulegoa	24



l. Bidaietarako osasun arretarako eta laguntzarako poliza	24
m. Langilearen Ataria	24
n. Erregistro Orokorra	25
ñ. Egoitza Elektronikoa (ERREGISTRO ELEKTRONIKOA)	25
o. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	25
p. Arreta Psikologikorako Zerbitzu (APZ)	25
q. Kirol Zerbitzua	25
r. Kultur Hedakuntzako Zerbitzua	26
s. Prebentzio Zerbitzura	26
t. Iragarki taulak - ehutaula	26
u. Unibertsitateko txartela	26

4.3. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko zerbitzuak 27

a. Kafetegia	27
b. Atezaintza	27
c. Ingurumenaren arloko kudeaketa eta materialak birziklatzea	27
d. Jendaurreko ekitaldiak	27
3. Erreprografia zerbitzua	28
f. Guneen erreserba	28
g. Idazkaritza	29

4.4 LARRIALDI PLANA 30

a. Ebakuazioa	30
b. Istripuetarako jarraibideak	31

5.1 Informazio orokorra 32

a. Lanaldia eta egutegia	32
--------------------------	----

5.2 TEKAZELen zerbitzu nagusiak 32

a. TEKAZELen Zerbitzua	32
b. Presentzia Ataria (RODAS)	33
c. Prestakuntza eta Plangintza	33
d. TEKAZELei arrera egiteko pertsonak	33

6. IRIentzako informazioa eta zerbitzu orokorrak 34

6.1 Informazio orokorra 34

6.2 IRI eta ikertzailentzako zerbitzuak 34

a. Campus Birtuala (eCampus)	34
b. Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza	35
c. Unibertsitateko ordenagailuak	35
d. HELAZ-SAE	35
e. GAITUZ	36
f. Irakaslana Ebaluatzeke Zerbitzua	36
g. eGela Zerbitzua, EGelaPi	36
h. Gestio Akademikoaren Zerbitzua (GAUR)	37
i. Ziurtagiriak eskuratzeko eskariak	37
j. Beste zerbitzu batzuk	37
k. IRLei arrera egiteko pertsonak	38



1. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa da, 1980an sortua, eta oinarri du zientziaren, teknologiaren eta kulturaren garapena. Euskal Herriko Unibertsitatea bere inguruan sustraitutako unibertsitate bat da, irekia eta iragazkorra, eta bi norabideko inpaktua eragiteko helburua du. Erreferentzia eta identifikazio eredu izan nahi du euskal gizartearentzat.

Egun, EHUK batez beste 15.000 ikasle berri inguru ditu. Hiru unibertsitate-campus ditu, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban banatuak: 19 fakultate eta atxikitako 4 zentro, 85 gradu hartzen dituztenak jakintza-arlo guztietan, eta 101 master eta 67 doktorego. Gainera, Kriminologia, Zuzenbide Kooperatiboa edo Antzinateko Zientziak bezalako alderdiak jorratzen dituzten Institutuak ditu.

1.1 Gobernu eta ordezkaritza organoak

a. Gobernu taldea

Errektoretza taldeko kide dira: errektorea, idazkari akademikoa, campusetako errektoreordeak, 8 errektoreorde eta gerentea.

Errektorea UPV/EHUko agintari akademikoko gorena da, unibertsitatearen ordezkaria da eta berori zuzendu eta gobernatzen du. Errektorea unibertsitateko kideek hautatzen dute, hautaketa zuzenaz eta sufragio unibertsal, libre eta sekretuaz. Errektore izateko hautagai izan ahal dira UPV/EHUn jardunean dauden unibertsitateko katedradunen kidegoko irakasle funtzionarioak.

Errektoreordeak errektoreak izendatuko ditu, UPV/EHUn zerbitzuak betetzen dituzten

irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen artetik. Errektoreordeek errektoreari laguntzen diote bere lanean, eta, gainera, beraiei beren-beregi eskuordetutako edo beren gain utzitako zereginak gidatu eta koordinatuko dituzte.

[Gobernu taldea – Idazkaritza Nagusia - UPV/EHU](#)

b. Gobernu Kontseilua

Gobernu Kontseiluaren eginkizunak dira, besteak beste, unibertsitateko politika orokorraren jarraibideak ezarri eta garatzea, bai eta jarraibideok aplikatzeko prozedurak ere, irakaskuntzaren, ikerketaren, giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen antolamenduaren arloan. Era berean, aurrekontuak egiten ditu eta urte anitzeko plana prestatzen du. Organo horren eginkizun nagusietako bat da, araugintzarako ahalmena erabiliz, Estatutuak garatu eta aplikatzeko arauak nahiz unibertsitatearen antolamendurako arauak onartzea.

[Gobernu taldea – Idazkaritza Nagusia - UPV/EHU](#)

c. Klaustroa

Unibertsitateko Klaustroa unibertsitateko kideen ordezkaritzarako organo gorena da. Bere eskumenen eremuan hartzen dituen erabakiek kide anitzeko beste organo guztiak behartzeko indarra daukate.

Hauek dira Unibertsitateko Klaustroaren osakideak: errektorea (bera izango da burua), idazkari nagusia (Klaustroko idazkaria izango da), gerentea eta 210 kide gehiago talde guztietatik aukeratuak.

[Klaustroa - UPV/EHU](#)



2. Arabako Campusa

Arabako Campusa hiriko hainbat ikastegi historiko integratzeko prozesuaren emaitza da, baina, gerora, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) abian jarri ondoren, beste ikastegi batzuk sortu dira campusean, eta campusa horien guztien fruitu da.

2.1 Campuseko organo orokorrak

a. Errektoreordetzako zuzendaritza taldea

Campuseko errektoreordea errektorearen ordezkari iraunkorra da. Campusaren gobernu, ordezkaritza eta administrazioa dira bere zereginak; guztientzako zerbitzuak kudeatzen ditu, eta unibertsitate osoarentzako jarraibide orokorrak eta Campuseko Batzarren onetsitakoak garatzen ditu campusean.

[Arabako Campuseko Errektoreordetza – Arabako Campusa - UPV/EHU](#)

b. Campuseko Batzarra

Arabako Campuseko Batzarra Campuseko gobernu eta ordezkaritza organoa da, kide anitzekoa. Batzarreko burua campuseko errektoreordea da, eta batzarreko kide dira: gerenteordea,

campuseko idazkaria eta beste 30 kide, campuseko ikastegi eta taldeetatik aukeratuak.

2.2 Campuseko instalazioak eta zerbitzuak

a. Errektoreordetza

Errektoreordetza Arabako Campuseko gobernu organoen egoitza da, eta garai bateko Flandes kuarteleko pabiloi berrituetan dago.

Errektoreordetzan campuseko zerbitzu nagusiak daude. Zerbitzu horietan, ikasleek eta, oro har, herritarrek unibertsitateko ikasketekin lotutako informazioa jaso dezakete, bai administrazio arlokoa, bai arlo akademikokoa, eta bertan egin daitezke arlo horretako izapideak.

Errektoreordetzan zerbitzu hauek daude: Komunikazio Bulegoa, Erregistro Orokorra, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua, Arreta Psikologikorako Zerbitzua, Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (IAZ) eta Prebentzio Zerbitzua.

[Zerbitzuak – Arabako Campusa - UPV/EHU](#)

b. Elurreta eraikina

Gasteizko eraikin nabarmenetako bat da eta antzinako Las Nieves psikiatriko-asiloaren egoitza izan zen. 28.000 m² baino gehiago ditu erakinak eta campuseko hainbat zerbitzu daude bertan: irakaskuntzarako 23 gela, 7 informatika gela, Enplegu Zentroa, sindikatuen bulegoak... Eraikin honetan dago, bestalde, "Koldo Mitxelena" Arabako Campuseko Biblioteka Nagusia.

c. Unibertsitate Pabiloia

Campuseko Errektoreordetzaren eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearen artean dago. Bertan daude ekitaldi aretoa, erabilera anitzeko gela (bilerak eta bideokonferentziak egiteko) eta erakusketa gela.

Jantokia

Jantokia jende guztiarentzat da eta lehiaketa publiko bidez egiten da zerbitzuaren esleipena. Astelehenetik ostiralera bitartean dago zabalik, eta opor sasoian itxita egoten da.

Elkar denda

Elkar denda Unibertsitate Pabiloiaren sotoan dago. Liburuak, aldizkariak, paper materiala, bulegoko eta informatikako materiala... saltzen ditu eta beherapena duzu unibertsitateko txartelarekin.



d. Lascaray Ikerguna

Ikerguna 2009an inauguratu zen eta biozientzien eta bizi kalitatearen arloko izen handidun hainbat ikerketa taldek dute bertan egoitza.

Gainera, ekipamendu egokia dauka aurre egiteko Zientzia eta Teknologiako Ikerketako Zerbitzu Nagusiak (SGIKER) daukan gune-premiei. Lau SGIKER daude bertan: ADN bankua, Kartografia eta Geografiako Informazio Sistemak, Erresonantzia Magnetiko Nuklearra eta Analisisien Zerbitzu Nagusia.

Arabako Campuseko Multimedia Materialak Prestatzeko Laborategia (ACMMPL) Lucio Lascaray Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroko beheko solairuan dago: Lagundutako Gela bat da eta prestatuta dago campuseko irakasle-ikertzaileek beren jarduerak egin eta ikus-entzunezko materialak sor ditzaten.

Gelan teknikari bat dago bertara doazenei laguntzeko: azaroak konpontzeko laguntza ematen du eta ekipamenduaren erabilerari buruzko zalantzak argitzen ditu.

[Multimedia Materialak Prestatzeko Laborategia – Arabako Campusa - UPV/EHU](#)

e. Micaela Portilla Ikerguna

Micaela Portilla Ikergunean zerbitzu ematen zaio Gizarte eta Giza Zientzien arloko ikerketa zientifikoari. Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat ikertalde daude bertan, Gizarte eta Lege Zientzietakoak, Artearen arlokoak eta Giza Zientzietakoak, arlo horiek lotura handia izanik Letren Fakultatearekin.

UPV/EHUK eraikin honetan ematen dituen zerbitzuen artean daude Doktorego Eskola (DOKE) eta Ikerketarako Laguntzaren arloko Zuzendaritza (Arabako Campusa).

[Micaela Portilla Ikerguna - UPV/EHU](#)

f. Tomás Alfaro Fournier Resa Unibertsitate Egoitza

2001ean inauguratu zen eta 220 plaza misto ditu: banakako apartamentuak, banakakoak sukalde partekatuarekin eta bi lagunentzakoak.

[UPV/EHU egoitzak - Arabako Campusa - UPV/EHU](#)



3. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

3.1 Oinarrizko informazioa


a. Kokapena

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea Arabako Campuseko ikastegietako bat da eta bi eraikin ditu: Fakultatearen egoitza (1 eraikinean) Hezkuntza dago (lehenago irakasle eskola), eta Atalean (2 eraikinean) Kirola (Lehenago SHEE).

Helbideak:

- Hezkuntza: Juan Ibáñez de S. Domingo 1 - 01006 Gasteiz
- Kirolak: Lasarte ataria, z.g. - 01007 Gasteiz.





b. Ordutegia

FAKULTATEAREN ORDUTEGIA	
Irailaren 1etik ekainaren 30era	Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 21:00etara
Uztailaren 1etik 31ra	Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 20:00etara
Abuztuaren 1etik 31ra (*)	Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 14:00etara

Oporraldietan izan ezik, zentroa itxita egongo baita.

3.2 Graduako eta Graduondoko Ikasketak

Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakasten diren [graduak](#):

Hezkuntzan:

- Haur Hezkuntzako Gradua (euskaraz)
- Lehen Hezkuntzako Gradua (euskaraz eta hirueleduna)
- Gradu bikoitza Lehen Hezkuntzan eta Gradua Jarduera Fisikoaren Zientzian eta Kirolean

Kiroletan:

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua (euskaraz eta gaztelaniaz)
- Gradu bikoitza Lehen Hezkuntzan eta Gradua Jarduera Fisikoaren Zientzian eta Kirolean

Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakasten diren [graduondokoak](#):

Hezkuntzan:

- Masterrak:
 - Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak
- Berezko tituluak:
 - IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan

Kiroletan:

- Masterrak:
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak
 - Irakasleen Prestakuntza Masterra: Heziketa Fisikoa
- Berezko tituluak:
 - Unibertsitate Aditua: Ariketa Fisikoa eta Bizi Estilo Osasuntsua

3.3 Instalazioak

Egoitza eraikinean (Hezkuntza), ikasleen prestakuntzarako 13 gela daude eskola magistraletarako, 4 mintegi eta 4 gela berezi (musika eta plastika gela eta gimnasioa). Horrez gain, laborategi bat eta 2 informatika gela ditu.

[Hezkuntza – Hezkuntza eta Kirol Fakultatea - UPV/EHU](#)

Kirol atalean 12 gela eta 3 mintegi daude prestakuntzarako. Horrez gain, 2 informatika gela eta 2 laborategi daude (Portaera motorra eta Kirol Errendimenduaren Analisia), irakaskuntza eta ikerketarako.

Bestalde, liburutegia dauka, kiroldegia, bi kantxa eta rokodromoa, Areto Nagusia, muskulazio gela, futbol zelaia eta tatamia.

[Kirola – Hezkuntza eta Kirol Fakultatea - UPV/EHU](#)

Fakultatearen web gunean aurkituko duzu ikastegiak dituen gela, ekipamendu eta gelen

edukierari buruzko informazio osoa.

3.4 Ikastegiaren antolamendua

Ikastegiak bere arautegia dauka. 2016ko urriaren 14an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta egun indarrean dago. Arautegian jasota daude ikastegiaren gobernu organoak: Gobernu Organoak – Hezkuntza eta Kirol Fakultatea - UPV/EHU

- Ikastegiko Batzarra: ikastegiko gobernu eta administrazio organo gorena da, eta batzarrak hartutako erabakiak lotesleak dira gainerako organo eta kideentzat. Kide anitzeko organoa da eta batzarrean ikastegiko kide guztiek dute ordezkaritza, Unibertsitateko Estatutuetan zehaztutako eran eta kopuruan. Fakultateko Batzarra da fakultateko araudia interpretatzeko eta aldatzeko eskumena daukan organo bakarra, bai eta araudi hori garatzeko zehaztutako bestelako arauak onartzekoa ere.
- Batzorde Iraunkorra: batzorde honek Fakultateko Batzarraren eskumen guztiak ditu eskuordetuta, eskuordetu ezin zaizkionak izan ezik.
- Dekanotza taldea: Gobernu organoa da, fakultatearen ordezkaria, eta hauek dira kideak: dekanoa, administrazio burua, idazkari akademikoa eta dekanordeak.
- Batzordeak: eginkizunak hobeto betetze aldera, fakultateak zenbait batzorde ditu, eta batzordeetan ikastegiko talde guztiek dute ordezkaritza. Egun, batzorde hauek ditu fakultateak: Egoitzako Batzordea, Fakultateko Batzarraren Batzorde Iraunkorra, Akademia Antolakuntzako Batzordea, Ekonomikoa, Euskarakoa, Berdintasunekoa, Hauteskundeetakoa, Kalitatekoa, Berrikuste eta Erreklamazioetakoa, Epaimahai Berezia, Practicum eta GRALeakoa eta Irakaskuntzaren Koordinaziokoa.
- Graduen eta moduluen koordinazioa: Titulazio guztiek barne egiturak dituzte, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren garapenean koordinazioa eta jardunbide egokiak lortzeko. Titulazio bakoitzak bere koordinazio eredua dauka (irakasgaia, modulua, maila). Horrela, koordinatzaile bat izendatzen da, eta, irakasle eta ikertzaileen talde batekin batera, irakaskuntzaren arloko erantzukizunez arduratzen da.

Irakasleak eta ikertzaileak sailetan daude antolatuta, eta sailak dira irakaskuntza eta ikerketa antolatzeko eta garatzeko oinarrizko organoak. Unitate horiek jakintza arlo baten edo batzuen irakaskuntza koordinatzeaz arduratzen dira, eta laguntza ematen

die irakasle eta ikertzaileei beren irakaskuntzaren eta ikerketaren arloko jarduera eta ekimenak betetzeko.

Saileko kide dira sail horretara atxikitako edo bere baliabide propioen kontura kontratatutako irakasle eta ikertzaileak, eta TEKAZELak, bai eta prestakuntza bidean dauden langileak, hirugarren zikloko ikasleak eta lehen eta bigarren zikloko ikasleen ordezkariak ere. Sailak bere arautegia dauka, saileko kontseiluak onartua.

Bestalde, TEKAZELak ikastegira atxikita daude eta ikastegiko zerbitzuetan aritzen dira lanean (dekanotzan, idazkaritzan, atezaintzan, mantentze lanetan...); hala ere, batzuk sailetara atxikita daude.

3.5 Bestelako datu interesgarri batzuk

a. Kalitatearen kudeaketa.

Ikastegian 140 irakasle-ikertzaile (IRI) inguru eta Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako 24 langile (TEKAZEL) gara.

Fakultateko dekanotza taldeak bere borondatea adierazi du ikastegiaren gestioa hobetzeko. Beraz, ikastegiak Kalitatearen Bermerako Barne Sistema dauka, eta egiaztatua izan da AUDIT bidez, ANECAn (Ebaluaziorako eta Akreditaziorako Estatuko Agentzia) eta UNIBASQen (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzia).

[Akreditazioak – Hezkuntza eta Kirol Fakultatea - UPV/EHU](#)

b. Xedea, ikuspegia eta balioak

[Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen Plan Estrategikoan zehaztuta dago:](#)

1. Xedea:

Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen izateko arrazoia da ikasleei prestakuntza osoa ematea etorkizunean lan eraginkorra egin dezaten hezkuntzan eta kirolean, eta komunitatean eragin positiboa izango duten profesionalak sortzea. Horretarako, esperientzia praktikoa ematen die ikasleei, unibertsitatean ikasitakoa testuinguru errealean aplika dezaten eta horrela beren enplegarritasuna hobetu. Era berean, fakultatearen helburua da hezkuntzari eta kirolari buruzko ikerketa sustatzea eta arlo horietako jakintza handitzen eta berritzen laguntzea.



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Xede du, halaber, hori guztia gobernantza sistema jasagarri baten bidez egitea, oinarritzen dena fakultateko kalitatearen kudeaketarako sistema oinarri izanik.

2. Ikuspegia:

UPV/EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen jomugak dira:

1. Erreferentea izatea hezkuntzaren eta kirolaren profesionalen prestakuntzan, ezaguna bere bikaintasun akademikoagatik eta bere planteamendu berritzaileagatik.
2. Komunitatearen garapen sozial eta kulturalari ekarpen esanguratsua egitea, hezkuntza inklusiboa eta jendearen ongizatea sustatuz kirolaren bidez.
3. Hezkuntzaren eta kirolaren arloko erreferentziako ikergunea izatea, hezkuntzari eta kirolari buruzko politiketan eragingo duen jakintza sortuko duena.
4. Jokabide jasangarriak eta arduratsuak sustatzea hezkuntzaren eta kirolaren arloan, garapen jasangarrirako munduko helburuekin bat eginez.
5. Aliantza estrategikoak egitea estatuko eta nazioarteko erakundeekin, prestakuntza eta ikerketa aberasteko.

3. Balioak:

1. **Bikaintasuna:** kalitatearen aldeko konpromisoa irakaskuntzan, ikerketan eta jardun profesionalean.
2. **Inklusioa:** dibertsitatea eta aukera berdintasuna bultzatzea ikasle guztientzat, aldi berean desberdintasunak errespetatuz eta baloratzuz.
3. **Berrikuntza:** sormena eta irtenbide berrien bilaketa sustatzea hezkuntzan eta kirolean.
4. **Gizarte erantzukizuna:** komunitatearen ongizatearen eta balio etiko eta jasangarrien aldeko konpromisoa.
5. **Lankidetzat:** talde lana egitea eta beste erakunde eta sektore batzuekiko aliantzak sortzea, prestakuntza eta ikaskuntza aberasteko.
6. **Hezkuntzarako eta kirolerako pasioa:** kirolaz ikasteko eta kirola egiteko zaletasuna bultzatzea, eta bizimodu aktibo eta osasungarria sustatzea.

IIP ETA TKAZE LENTZAKO INFORMAZIO ETA ZERBITZU OROKORRAK

4. IRI, Ikertzaile eta TEKAZE LENTZAKO informazioa eta zerbitzu orokorrak

4.1 INFORMAZIO OROKORRA

a. Telefono luzapen garrantzitsuak (*)

Egoitza eraikineko atezaintza (Hezkuntzakoa)	3266
Ataleko eraikineko atezaintza (Kiroletakoa)	3500
Dekanoa	3503
Ikasleen idazkaritza (Hezkuntzakoa)	3268
Ikasleen idazkaritza (Kiroletakoa)	3545
Administrazioa (Hezkuntzakoa)	3271
Administrazio koordinazioa (Kiroletakoa)	3505

* Kanpotik deituz gero, 945 01 markatu behar da hasieran

b. Fakultatearen logotipoa

UPV/EHUren irudi korporatiboa kanpora proiektatzeko eta garapen homogeneoa lortzeko asmoz, eta unibertsitatearen [Erakunde Irudiaren Eskuliburuari](#) jarraikiz (2006ko ekainaren 15eko Gobernu Kontseilua), gure ikastegiak logotipo bat du papergintzan eta gainerako komunikazio euskarrietan erabiltzeko. Diseinua bi hizkuntza ofizialetan nahiz ingelesez dago eskuragarri.

4.2 UPV/EHUko zerbitzuak

a. Unibertsitateko sarera urrunetik sartzeko bidea

UPV/EHUk badu sare pribatu birtual bat edo VPN bat [unibertsitatearen sarera urrunetik sartzeko](#), datu sare publikoaren bidez konexio segurua izateko (igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazio zifratua izanda). Zerbitzu horretara unibertsitateko kredentzialak (LDAP) erabiltza sartzeko da.

b. Gizarte laguntzak

Unibertsitateak, Gizarte Funtzaren bidez, laguntzak ematen ditu osasun arloko gastuetarako (betiere, gastuak ez badira mutualitateak edo Gizarte Segurantzak ordaindutakoak); horrez gain, UPV/EHUko ikastegietan eta ikastegi atxikietan egindako matrikuletarako laguntza ematen die langileei.

[Gizarte Laguntzak – Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak - UPV/EHU](#)

c. Biblioteka

UPV/EHUko biblioteka ikaskuntzarako eta ikerketarako baliabideen zentro bat da.

["Koldo Mitxelena" Arabako Campuseko Biblioteka Nagusia](#) Elurreta eraikinean dago, eta bertan daude bilduta campuseko fakultate eta eskoletako biblioteketan zeuden funtsak.

Bestalde, Kirol Atalean beste biblioteka bat dago kirolaren arloko funtsak eta materialak dituen.

Bibliotekako zerbitzuak erabiltzeko unibertsitateko txartela behar da. Aukera dago UPV/EHUko beste biblioteka batzuetako liburu eta artikulak eskuratzeko, eta bertan ez badaude eskatutakoak, Estatuko eta beste herrialde batzuetako biblioteketara bidal daiteke eskaria biblioteken arteko mailegu zerbitzuren bidez.

[Biblioteka – ehuBiblioteka - UPV/EHU](#)

d. Bilatu

[Bilatu zerbitzuaren](#) bidez UPV/EHUko langileen telefono luzapenak eta helbideak lortu daitezke, bai IRlenak bai TEKEZELenak, eta bilaketa egiteko hainbat aukera eskaintzen ditu.

Zerbitzu horren bidez, bestalde, gure LDAPa kudeatu dezakegu eta pasahitza aldatu edo berreskuratu.

e. Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzua (EAZ)

Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzua (EAZ) Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetzaren menpe dago eta gerenteordetzak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzean sor daitezkeen arazoak konpontzeko laguntza ematen du.

› Harremanetarako: 945014400/ cau@ehu.eus

[UPV/EHUko Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzua \(EAZ\) - Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetza – UPV/EHU](#)

f. Posta elektronikoa

UPV/EHUK langile guztiei ematen die posta elektronikoko helbide bat irakaskuntzako, ikerketako edo gestioko lanetan lagungarri izan dezaten. Posta elektronikoko kontua kontratua sinatzeaz batera sortzen da.

Posta elektronikoko helbidearekin batera LDAP gakoak ematen dizkio langileari, eta helbideak izena.abizena@ehu.eus egitura izaten du.

g. LDAP kontua

Lanerako kontratua edo izendapena egiten dugun unean, unibertsitateko kredentzialak ematen dizkigute (erabiltzaile izena eta pasahitza). LDAP honen bidez hainbat zerbitzutara sar gaitezke: unibertsitateko ordenagailuetara, posta elektronikora, GAUR aplikaziora, Campus Birtualera (eGela), Egoitza Elektronikora, Eduroam Wifi sarera eta abar. Pasahitza aldatu nahi izanez gero, joan [Bilatu Zerbitzura](#).

h. Sinadura digitala eta akten argitaratzea

UPV/EHUK ezarrita dauka sinadura digitalaren sistema administrazio prozesu guztietan. Horri buruzko informazio osoa [Egoitza Elektronikoa](#)n daukazu eskuragarri.

Irakasgaien kalifikazioak aktak argitaratzeko, urrats ezberdinak jarraitu behar dira.

1. Gaurren sartuko da, Azterketak, eta Aktak kalifikatu. Eta dagokion irakasgaia aukeratuko da.



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

G.A.U.R.

-  **JOAN-ETORRIA ZIURTAGIRIAK**
-  Irakaskuntza-eskaintza
-  Ikasketa-planak
-  Doktoregoa
-  Errolda
-  Mantentze orokorrak
-  Matrikulak
-  Ikasleen iritzia-ren inkesta
-  Practicumeko inkestak
-  Sarrerak
-  Azterketak
 -  Kontsultatu itxitako aktak
 -  Aktak kalifikatu

Hautatu akta	
Urtea	Deial.
2025/26	MAI

2. Ikasle bakoitzaren kalifikazioa sartuko da.

Ohorezko matrikulari jarri nahi izatekotan, hogeik asleko multzo bakoitzeko edo hogeitik beherako asle multzo bakoitzeko matrikula bana esleitzea dago. Hau da, 61 asle izatekotan, lau ohorezko matrikula esleitzea dago, baina 60 izatekotan, hiru. Ohorezko matrikulen arautegia hemen ikustea dago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/audia/graduako-ikasketen-gestiorako-araudia/matrikula-eta-prezio->

3. Behin notak gordeta dauden, Argitaratu notak sakatuko da, argitaratze-data bat jarriko da, ikasleek notak ikus ditzaten, eta berrikuspen eguna eta ordua finkatuko da, ikasleek zalantzak argitzea izan ditzaten. Aplikazioak noten argitalpenetik horien berrikuspenera arte denbora tarte bat uztera derrigortzen du.


Beheko irudiaren goialdean ikus daitekeen bezala, berrikuspen datatik 3 egun pasa behar dute, gehienez, Pasatu espedientera aukera sakatzeko, hau da, behin-behinekoa zen akta behin-betikoa bilaka dadin.

Estatistikak					
itzan					
32					
Deial.	Nota	Kalifikatu			
1		v			
1		v			
1		v			
1		v			
1		v			
1		v			
1		v			
1		v			
1		v			
1		v			
1		Ez aurkeztua v			
1		v			



Irten		Definitu probak		
Kalifikatu	Argitaratu notak	Notak testu moduan	Pasatu espedientera	Estatistikak
Aktak sinatzeko entregatzeko epea: 3 egun baliodunekoa da 2026/06/10 egunetik kontatzen hasita				
Akta mota: Normala		Unibertsitate arteko programa: EHU/UPV		
2025/26	maiatz	154	Lehen Hezkuntzako Gradua (Euskera)	
Zehaztugabea	2. maila	25861	Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza 31	
Jarri berrikusteko data				
Kalifikazioen argitaratze-data		Azterketak berrikusteko data		
2026/06/05		2026/06/10		
Ordu-bitartea 1		Ordu-bitartea 2		
14 : 00 - 14 : 15		14 : 15 - 14 : 30		
Azterketa berrikusteko lekua				
ARGITARATU				

4. Hiru egun horien barneko epean, Pasatu espedientera sakatzen dugu, eta Bai sakatzerakoan, sinadura digitala eskatuko digu.




5. Txartel birtuala aplikazioa irekiko da ordenagailuan. Eta Izenpen identifikatu beharko da, nahiago den aukera sakatuz. Mugikorrean mezu bat jasoz egin daiteke, edo hodeian dagoen ziurtagiriaren bitartez. Mugikorrean kodea jasotzeko, Izenpe mobile deskargatu beharko da sakelakoan.

Hemen, txartela birtualaren esteka deskargatzeko esteka:

<https://www.izenpe.eus/txartel-birtuala/webize00-cnciudadania/eu/>

Eta hemen, Izenpe mobile erabiltzeko argibideak: <https://www.izenpe.eus/txartel-birtuala/webize00-cnciudadania/eu/>



i. Zerbitzu ordainak

Gobernu Kontseiluak 2024ko otsailaren 22an hartutako [erabakiari](#) jarraikiz, zerbitzu eginkizunak dira unibertsitateko langileei egoera jakin batzuetan baimentzen edo agintzen zaizkien zeregin bereziak, ohiko lanlekua duten udalerritik kanpo egin behar dituztenak.

Ordain hauek jasotzeko egin beharreko izapideak automatizatuta daude eta Izapide plataformaren bidez egin behar dira. Aplikaziora Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzako Gerenteordetzaren web gunearen bidez sartzen da.

<https://izapide.ehu.eus>

j.- Baimenak

IRIek lanpostutik kanpo daudenerako egin behar dituzten izapideak UPV/EHUko [Administrazio prozedura elektronikoen katalogoan](#) daude jasota. Baimena, lehenengo eta behin, saileko zuzendariak onartu behar du eta, gero, ikastegiko dekanok. Eskuordetu gabeko baimenak (15 egunetik gorakoak) Irakasle-ikertzaileen errektoreordeari bidali behar zaizkio berak balioetsi ditzan.

TEKAZELek [RODAS-ordutegiaren kontrolerako aplikazioaren](#) bidez eskatu behar dituzte baimenak ([baimenei buruzko eskuliburuan daude zehaztuta](#)).

Baimenak diruren bat itzultzea badakar, eskaria arauetan zehaztutako epean eta eran egin behar da.

k. Komunikazio Bulegoa

Komunikazio Bulegoak UPV/EHU gizartearekin jartzen du harremanetan, audientzia ezberdinei egokitutako edukiak sortuz. Besteak beste, hauek dira bere zereginak: webgunerako eta sare sozialetarako albisteak idaztea; argazkiak eta bideoak lantzea; komunikazio estrategiak eta marketin planak diseinatzea.

UPV/EHUko kideak, erakundearen ordezkari legez, harremanetan daudenean komunikabideekin edo sare sozialekin, zenbait aholku izan behar dituzte kontuan. Komunikabideekin harremanetan jarri behar izanez gero, garrantzitsua da [Arabako Campuseko Komunikazio Bulegoari](#) jakinaraztea.

l. Bidaietarako osasun arretarako eta laguntzarako poliza

UPV/EHUko langile guztiek (IRI eta TEKAZEL) aukera dute bidaietarako osasun eta laguntza poliza bat kontratatzeko. Izapideak [Ondare eta Kontratazio Gerenteordetzaren](#) bidez egin behar dira.

m. Langilearen Ataria

UPV/EHUko IRI eta TEKAZELek [Langileen Ataria](#) aplikazioan sartzeko aukera daukagu, eta bertan, datu pertsonalak, lanekoak eta arlo ekonomikoak ikusi eta kudea ditzakegu, besteak beste: datu pertsonalak edo banku korrontekoak ikusi edo aldatu; nomina ikusi; 10T ziurtagiria eskuratu; mailegua eskatu; unibertsitatean izandako lanpostuak ikusi... Atari honen bidez, bestalde, UPV/EHUko langileei eskainitako ikastaroetarako izena eman dezakegu.



n. Erregistro Orokorra

UPV/EHUko Erregistro Orokorra zerbitzu publiko bat da, helburu daukana modu ofizialean jasota uztea unibertsitateko edozein organori erregistro bidez bidalitako eskari, idatzi eta komunikazioak, edo unibertsitateak berak bidalitakoak. Arabako Campuseko erregistroko bulegoa errektoreordetzan dago.

› [WEb gunea](#)

ñ. Egoitza Elektronikoa (ERREGISTRO ELEKTRONIKOA)

UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa webgune instituzional bat da, eta honen bidez administratuak unibertsitatearekin komunikatzen dira gunean bertan kudeatzen diren zerbitzu eta izapide elektronikoen bidez. Prozeduren katalogoan zehaztuta daude (azalduta eta sailkatuta) bide elektronikotik egin daitezkeen prozedura, izapide eta zerbitzu guztiak.

Bestalde, egoitza elektronikoa [dokumentazio orokorrerako erregistro elektronikoa](#) ere badago, eta bertatik aurkez daitezke eskariak, idatziak eta jakinarazpenak.

[Egoitza elektronikoa - UPV/EHU - ehu.eus](#)

o. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

Zerbitzuaren xedea da aukera berdintasunerako printzipioa bermatzea, desgaitasunen bat daukaten, eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikasketetan jardun eta, zerbitzu eta bestelakoak baliatzen lagunduz, unibertsitatean erabat integratu eta parte hartzeko. Helburua hori izanik, [prestakuntza ekintza bereziak](#) antolatzen dituzte irasleentzat eta TEKAZELentzat.

p. Arreta Psikologikorako Zerbitzu (APZ)

Zerbitzu hau UPV/EHUen ikasten ari diren ikasleentzat da, baina IRI eta TEKAZELentzako tailerrak antolatzen dituzte.

q. Kirol Zerbitzua

Zerbitzu honen helburua da unibertsitateko kideei erraztasuna ematea kirol eta ariketa fisikoko jarduerak egiteko. Beraz, hainbat lehiaketa eta aisialdiko jarduera antolatzen ditu eta horrez gain, kirol arloko zenbait izapidez arduratzen da: unibertsitateko kirol txartela egiten da bertan, hitzaldiak antolatzen dituzte eta abar. Badute [bulego bat](#) Arabako Campuseko Errektoreordetzan.

r. Kultur Hedakuntzako Zerbitzua

[Arabako Campuseko kultur hedakuntzako zerbitzuaren](#) (EHUKULTURA Araba) helburua kultur jardueraren garapena sustatzea da, kultur eskaintza zabala eta garaikoa programatuz eta campuseko akademia eta kultur jardueraren osagarri, bai eta askotariko kultur lantegiak eta ikasgelak eskaini eta, halakorik eskatzekotan, bertako zerbitzuak bestelako jarduerak garatzeko eman ere. Beste alde batetik, campus honetako ikastegi, talde eta kideentzako dirulaguntzak antolatu, koordinatu eta kontrolatzen ditu kultur jarduerak eta akademiak bestekoak antola daitezten.

s. Prebentzio Zerbitzura

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuaren ardura da aurrera eramatea unibertsitateko kideen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio jarduerak. Osasun Arloaren eginkizunak dira osasuna zaintzeko beharrezkoak diren zereginak betetzea, bai eta ergonomia eta psikosoziozologia aplikatuarekin lotutakoak ere. Arlo Teknikoak, berriz, laneko segurtasun eta higienearen arloko eginkizunak ditu.

Urteko osasun azterketa egiteko, zerbitzuak berak jakinarazten du zein datatan egin daitekeen eta Osasun Arloak hitzordua eskatzeko daukan gunearen bidez eskatu behar da. Gune horretan beste mota bateko kontsultetarako hitzordua ere eska daiteke.

[Osasun arloa - hitzorduak](#)

t. Iragarki taulak - ehutaula

UPV/EHUK iragarki oholen bidez ematen ditu argitara iragarkiak, komunikatuak eta unibertsitatearekin zerikusia daukaten iragarkiak. Egunean bitan, laburpenak bidaltzen dituzte posta elektronikoaren bidez, eta loturaren bidez eskura daiteke informazio zabalagoa.

UPV/EHUko kide guztiek (TEKAZEL, IRI eta ikasleek) daukagu aukera sistema honetan argitara eman nahi dugun informazioa bidaltzeko.

[EHUTaula - UPV/EHU](#)

u. Unibertsitateko txartela

UPV/EHUn lan egiten dugun guztiok unibertsitateko txartela daukagu, besteren ezina, eta TEKAZALEk txartel hori erabiltzen dute fitxatzeko. Txartelari buruzko izapideak administrazioaileak/administrazioaileko koordinatzaileak egiten ditu, eta galdu, apurru edo lapurru egiten badizute, berehala baligabetu egin behar duzu.

Txartela identifikaziorako bitarteko segurua da eta txartela erabiltzaileak sar gaitzezke eraikinean edo sarraila elektronikoa daukaten guneetara, betiere, horretarako baimena izanez gero. Txartela zenbait zerbitzu erabiltzeko bide da, eta izapide elektronikoak egiteko balio du. Garajera sartzeko balio du eta liburutegiko txartela ere bada.

Horrez gain, unibertsitateko txartela erabil dezakezu zenbait lekutan beherapena izateko, besteak beste, museoetan.

4.3. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko zerbitzuak

a. Kafetegia

Fakultatean, egoitza eraikinean (Hezkuntzan), kafetegia dago.

Ordutegia: 8:00 – 18:00 (ostiraletan eta ekainean izan ezik: 8:00 – 16:00)

b. Atezaintza

Fakultatean, sarrera nagusian, atezaintza dago. Atezaintzan dituzte geletako giltzak, geletako eta mintegietako armairuetakoak, posta banatzen dute etab.

Harremanetarako: ga-eum.atezaina@ehu.eus (Hezkuntza); jfk.atezaintza@ehu.eus (Kirola)

c. Ingurumenaren arloko kudeaketa eta materialak birziklatzea

Fakultateak bere egiten ditu [Planeta Campusa \(2019-2025\) Planean](#) jasotako helburuak. Ingurumeneko baliabideak errespetuz erabiltzearen alde egiten dugu, eta badakigu jakin horretarako beharrezkoa dela fakultateko kide guztien lankidetzak.

Fakultatean zenbait gai birziklatzeko zerbitzua daukagu:

- Papera, kartoia, plastikoa, organikoak eta gainontzekoak (korridoreetan eta sarreran daude horretarako ontziak)
- Pilak (eskaileren ondoan dago ontzia)
- Produktu kimikoak (laborategietan, arauari jarraikiz hala behar dutenean)
- Informatikako kontsumigarriak (atezaintzan).
-

d. Jendaurreko ekitaldiak

Fakultateko kideek badituzte erabilgarri zenbait bide fakultatean antolatzen diren ekitaldien berri emateko (biltzarrak, hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, tesiak...).

Web orriko agendan argitara eman nahi den informazioa dekanoren idazkariari (hezkuntzan) edo laborategiko teknikariari (kiroletan) bidali behar zaio. Ezinbestekoa da eskari orria informazio guztia osatuta bidaltzea, eta horri erantsita kartela edo ekitaldia iragartzeko erabiliko den orria.

Posta elektronikoko banaketa zerrenden bidez argitaratu nahi den informazioa helbide hauetara bidali behar da, talde bakoitzak berera:

- HEZKUNTZAKO IRiek: vgpd@list.ehu.eus
- HEZKUNTZAKO IKASLEEK: alumagisterio-vitoria@ehu.eus
- KIROLETAKO IRiek: pdijfkzf@ehu.eus
- KIROLETAKO IKASLEEK: alujfkzf@ehu.eus
- TEKAZELen FAKULTATEKO ZERRENDA OROKORRA: pashkffed@ehu.eus
- IRien FAKULTATEKO ZERRENDA OROKORRA: pdihkffed@list.ehu.eus

Banaketa zerrendetarako laburpen bat bidali beharko da eta horri erantsita kartela edo ekitaldia iragartzeko erabiliko den orria.

UPV/EHUko hizkuntza ofizialak erabiltzeko dituen irizpideei jarraikiz, informazioa bi hizkuntza ofizialetan egon behar da.

3. Erreprografia zerbitzua

Fakultateak (egoitzan) erreprografia zerbitzua dauka beheko solairuan: enpresa pribatu batek darama zerbitzua emakida bidez.

Kiroletako eraikinean norberak erabiltzeko zerbitzua dago.

Harremanetarako (hezkuntzan): magis.ricoh@gmail.com

Harremanetarako (kiroletan): jfkirola.ricoh@gmail.com.

f. Guneen erreserba

Aukera dago fakultateko guneak (gelak, mintegiak eta areto nagusiak) erreserbatzeko irakaskuntzarako, kultur ekintzetarako... betiere, eskolak emateko erabiltzen ez diren orduetan.

Zalantzarik edo gorabeherarik izanez gero, jarri harremanetan Gerardo Mendazonarekin (hezkuntzan) edo Beatriz Santamariarekin (kiroletan).

g. Idazkaritza

Fakultateko idazkaritzan egiten dira gestio akademikoarekin zerikusia daukaten administrazioko izapide guztiak: matrikula, taldeen banaketa, espedienteen kudeaketa...
[Aurretiko hitzordua](#)

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA	KIROLA	HEZKUNTZA
Astelehenetik ostegunera	09:00 - 13:00 15:00 - 16:30	09:00 - 13:00 15:00 - 16:30
Asteartetik ostegunera		
Ostiraletan	09:00 - 13:00	09:00 - 13:00
Ekainaren 1etik irailaren 15era		
Harremanetarako	secretaria.afd@ehu.eus	secretaria.eum- vi@ehu.eus
Arduradunak	Zerbitzu betekizunen zain	Iratxe Martín

4.4 LARRIALDI PLANA

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko larrialdi planean jasota dago eraikinak nola hustu behar diren horretarako premia dagoenean. Egoera horretan nola jokatu ikasteko eta antolaketan akatsak antzemateko, urtero ebakuazio simulakroa egiten da. Harremanetarako: Administrazioa

a. Ebakuazioa

Alarma orokorrak jotzen badu, DENOK irten behar gara eraikinetik, modu ordenatuan, arau hauek kontuan izanda:

- Desgaitasunen bat daukaten pertsonen lagundu, istripuren bat izan badute edo gaizki badaude.
- Gelatik/Laboregitegitik irten, eta irteerara joan ebakuazio bideari jarraikiz.
- Irten lasai, aztoratu barik, korrika egin barik, ez bultzarik egin eta ez pilatu.
- Ez erabili igogailurik.
- Ez egin atzera.
- Elkargunera joan.

Egoitza nagusian (hezkuntzan) eta ataleko eraikinean (kiroletan), badira gela nagusi batzuk. Larrialdietan, gela nagusietan dauden irakasleak izango dira guneko arduradunak, eta ziurtatu egin beharko dute bere ardurapeko gela guztiak hutsi daudela.


Jende guztia elkargunera joan behar da (irudian daukazu adierazita non dagoen elkargunea), eta bertan egon behar gara harik eta ebakuazio arduradunaren batek larrialdia bukatu dela esan arte. Inor falta dela uste baduzu, eman horren berri fakultateko ebakuazio arduradunari (txaleko horia izango du soinean).

ELKARGUNEAK

KIROLETAN



HEZKUNTZAN





b. Istripuetarako jarraibideak

Fakultate barruan istripuren bat izanez gero, [Prebentzio Zerbitzuak egindako orrian](#) daude jarraibideak.



TEKAZELentzako informazioa eta zerbitzu orokorrak

5. TEKAZELentzako informazioa eta zerbitzu orokorrak

5.1 Informazio orokorra

Salbuespenak salbuespen, fakultatean lan egiten duten Teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (TEKAZEL) ikastegira atxikita daude edo ikastegian egoitza edo atalen bat daukaten sailetara.

Fakultateko TEKAZEL guztiak ikastegiko administratzailearen menpe daude egitura organikoan, bera baita langile horien ikastegiko arduraduna. Nagusi funtzionala, berriz, zerbitzuko edo saileko arduraduna da.

a. Lanaldia eta egutegia

Urtero, UPV/EHUK Lanaldi eta egutegiaren zirkularra osatzen du, eta horri jarraikiz antolatzen dira TEKAZELen lanadia, ordutegia, oporrak eta baimenak.

[Lanaldia eta egutegia- TEKAZEL – UPV/EHU](#)

5.2 TEKAZELen zerbitzu nagusiak

a. TEKAZELen Zerbitzua

TEKAZELen Zerbitzua talde honetako langileen kudeaketarekin zerikusia duten prozedura guztiez arduratzen da. Bere ardura dira, besteak beste: TEKAZEL langileen kontratazioa eta izendapena, egoera administratiboaren kudeaketa, hirurtekoak eta abar.

[Aurkezpena – TEKAZEL – UPV/EHU](#)



b. Presentzia Ataria (RODAS)

Presentzia Atariaren bidez egiten dira baimenetarako eskariak, eta bertan ikus daitezke fitxaketak. Fakultatean fitxatzeko makina bat dago idazkaritzaren alboan, sarreran.

[Ordutegi kontrola - TEKAZEL – UPV/EHU](#)

c. Prestakuntza eta Plangintza

UPV/EHUko Langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabinetearen helburu nagusia da lanpostuari dagozkion zereginak orain eta etorkizunean egiteko modua hobetzea eta garapen profesionala sustatzea.

Horretarako, prestakuntza arloan hainbat prestakuntza jarduera antolatzen ditu.

[Prestakuntza eta Plangintza- UPV/EHU](#)

d. TEKAZELei arrera egiteko pertsonak

Arantza Juarros (Hezkuntzan); arantza.juarros@ehu.eus)

Beatriz Santamaría (Kiroletan); beatriz.santamaria@ehu.eus)



IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN INFORMAZIOA ETA ZERBITZU OROKORRAK

6. IRI eta Ikertzaileentzako informazioa eta zerbitzu orokorrak

6.1 Informazio orokorra

Fakultatean lan egiten duten irakasle-ikertzaileak (IRI) ikastegian egoitza edo atalen bat daukaten sailetara atxikita daude. Irakasle-ikertzaileen nagusia saileko zuzendaria da.

Fakultateko irakasle-ikertzaileek, irakaskuntzaz gain, ikerketa lan handia egiten dute, eta, horrez gain, sailaren eta ikastetxearen kudeaketa eta administrazio arloan ere eginkizunak dituzte (batzordeetara joatea, idazkaritzako lanak egitea, etab.).

Irakasleen eginkizunak behar bezala betetzeari buruzko arauak (laneko ordutegia, tutoretzak, lizentziak, irakaskuntzaren plangintza, bateraezintasunak, etab.) UPV/EHUren webgunean daude jasota, Irakasle-ikertzaileen Gerenteordetzako IRIen atalean.

[Irakasle-ikertzaileak - Irakasle-ikertzaileen Gerenteordetza – UPV/EHU](#)

6.2 IRIentzako zerbitzuak

a. Campus Birtuala (eCampus)

eCampus UPV/EHUko zerbitzua da, ikaskuntza eta irakaskuntza telematikoaren alderdi guztiak kudeatu eta garatzeaz arduratzen dena, bai prestakuntza arautuan, bai etengabeko prestakuntzan. Irakasleei laguntza ematen die irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan unibertsitateak eskaintzen dituen ikasgela birtualak kudeatzeko.

Horrez gain, eCampus-ek multimedia grabazio zerbitzuak eskaintzen ditu, unibertsitateko komunitateko eragileek jarduera akademiko eta zientifikoak zabaltzea errazteko.

b. Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza

Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza UPV/EHUren ikerketa jarduera koordinatzeaz arduratzen den unitatea da. Zuzendaritzak honako zeregin hauek dauzka bere ardurapean: unibertsitateko, erkidegoko eta estatuko ikerketa taldeak eta proiektuak kudeatzen ditu; prestakuntza bidean dauden ikertzaileez eta ikertzaile kontratatuez arduratzen da, eta ikerketarako azpiegituretarako deialdiak egiten ditu.

Gainera, ikerketa unitatean, unibertsitateko sailetan eta ikerketa institutuetan egiten den ekoizpen zientifikoa ebaluatzen da. Jarduera osagarri moduan, zuzendaritza honek laguntza ematen die Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari eta UPV/EHUko Etika Batzordeari.

[Ikerketaren Gestioa – UPV/EHU](#)

Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzak [Ikertu](#) plataforma –ikerketa jarduera online gestionatzeko sistema–, jarri du abian ikertzaileei, enpresei eta, oro har, jendeari ikerketa proiektu eta kontratuei buruzko informazio eguneratua emateko, eta, bestalde, bertan daude jasota unibertsitateak erregistratu dituen jabetza industrialeko eta intelektualeko elementuak.

Horrez gain, plataforma horren bidez egiten dira ikerketa proiektuak eta kontratuak kudeatzeko/izapidetzeko eskaerak. Halaber, plataforma horretan kudeatzen dira irakasleen CVak, webguneko titulazioetako irakasleen zerrendetan agertzen direnenak.

Gainera, [Ekoizpen Zientifikoaren](#) Ataria dago, irakasle eta ikertzaile bakoitzaren ekoizpen zientifikoa erregistratzen den gunea.

c. Unibertsitateko ordenagailuak

IKT Gerenteordetzak ordenagailu eramangarria ematen die astean 4 orduetik gorako kontratua daukaten irakasleei, baldin eta ez badute lanean beste ordenagailurik. Zerbitzu hori ikertzaileentzako ere bada. Ordenagailu eramangarria eskuratzeko zenbait [baldintza](#) daude zehaztuta.

Ordenagailua lortzeko eskaria [IRlen informatika ekipoen web gunean](#) egin behar da.

d. HELAZ-SAE

Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren zeregin nagusia unibertsitateko irakasleei irakaskuntzaren eremuan hasierako prestakuntza eta prestakuntza etengabea ematea da. [IKD i3 hezkuntza ereduaren](#) parametroak erabiliz. Horretarako zenbait programa eta jarduera ditu UPV/EHUko irakasleei zuzenduak. Irakasleen garapen profesionalaren ildo horri jarraikiz, era berean, [Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen deialdia: IKD i3 Laborategiak](#) antolatzen ditu.

Gainera, ikastegietako aholkularitza lana ere egiten du, orientazioa eta laguntza eskainita koordinazioa sustatzeko, ikastegietako prestakuntza ikastaroak edota planak diseinatzeko eta curriculumak aldatzea eta berritzea xede duten erakunde proiektuak garatzeko.

[Hezkuntza Laguntzarako Zerbitzua \(HELAZ-SAE\) – UPV/EHU](#)

e. GAITUZ

Garapen akademikorako GAITUZ programaren helburua da kanpo akreditazioko mugarren bitartez ibilbide profesional mailakatuak, eskalagarriak eta aitorgarriak osatzen dituzten jardueren finantzaketan laguntzea. Finantzaketa hori irakasleen egoera berezira egokitzen da. Horrela, laneratzeko eta hasierako zikloan dauden pertsonen modu zuzenagoan eta sakonkiago lagundu nahi zaie, azkenik irakasle iraunkorraren akreditazioa lortu ahal izan dezaten. Horrez gain, barneko edo kanpoko beste deialdi batzuen bidez jorratzen ez diren alderdietan ere lagundu nahi zaie irakasle iraunkorrei.

f. Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzua

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ/SED) bere eginkizunen artean ditu irakaskuntzako prestakuntza ebaluazioko prozesuak sustatzea, diseinatzea, garatzea eta horiei buruz aholkatzea. Jarduera nagusiak honako hauek dira:

- DOCENTIAZ Programa: UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazioa.
 - Ikasleek irakasleen irakas jardueraz duten iritzia buruzko inkesta: graduak, graduondokoak, praktikumeak eta doktoregoak.
 - Unibertsitatean izandako esperientziari buruzko ikasleen inkesta.
 - Langileei egindako gogobetetze inkesta (Teknikariak eta kudeaketako eta administrazioako eta zerbitzuakoko langileak, irakasle-ikertzaileak).
 - Irakasleentzako ziurtagiriak.

[Irakasleen Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzua – UPV/EHU](#)

g. eGela Zerbitzua, EGelaPi

[eGela](#) gradu, master ofizial, berezko titulu eta doktorego programetako irakasgaietarako gela birtualen zerbitzua da. Zerbitzuaren plataforma Moodle da.

Ikasgela birtualak erabiltzea hautazkoa da; hau da, irakasleei eskaintako aukera bat da, eta haiek erabakitzen dute erabili ala ez. Zerbitzu honek ez ditu ohiko eskolak ordezkatzeko.

[eGelaPi](#) UPV/EHUko kideen prestakuntzako zerbitzua da. UPV/EHUk unibertsitateko kideen eskura jartzen du eGelaPi izeneko irakaskuntza telematikorako plataforma, etengabeko prestakuntzako tresna izanik.

h. Gestio Akademikoaren Zerbitzua (GAUR)

[GAUR](#) izapide akademikoen kudeaketa informatikorako erabiltzen den tresna da. Leihatila birtual bat da, eta horren bidez, ikasleen notak erregistratzen dira, irakasgai batean matrikulatutako ikasle taldeen zerrendak eskuratzen dira, irakasgai bateko helbide elektronikoen banaketa zerrendak eskuratzen dira, irakaskuntza planak kontsultatzen dira, etab.

GAURtik, irakasle eta ikertzaileak "Urteko Irakaskuntza Gaitasuna" eta "Urteko Irakaskuntza Enkargua" datu guztietara sar daitezke. Era berean, irakasle eta ikertzaile bakoitzaren tutoretzak ere plataforma horretatik kudeatu behar dira.

Unibertsitateko Gestio Akademikoko zerbitzu honetan sartzeko erakundearen kredentzialak behar dira.

i. Ziurtagiriak eskuratzeko eskariak

[Prozedura](#) honen bidez eska ditzakete UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek zenbait ziurtagiri:

- Emandako zerbitzuen arloan: emandako zerbitzuen orria, bosturtekoak, seiurtekoak, irakaslana, Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak (HBP) eta abar.
- Graduiko ikasketen arloan: GRALeke zuzendari lanen ziurtagiria eta GRALetako epaimahaietako kide izanaren ziurtagiria.
- Graduondoko ikasketen arloan: masterreko arduradun lanen ziurtagiria, MALeke zuzendari lanen ziurtagiria, doktorego tesietako zuzendari lanaren ziurtagiria eta abar.

j. Beste zerbitzu batzuk

Horrez guztiaz gain, UPV/EHUk irakaslana esleitzeko irizpideei buruzko informazioa, IRlen banakako jarduera planari buruzkoa... eskaintzen du.

IRlen karrera akademikoa, JARDUN, bateragarritasunak, plazak, irakaslana esleitzeko arautegia, irakats ahalmena...

<https://www.ehu.eus/eu/web/iip>

EHUko Artxibo Digitala Ikerketa eta Irakaskuntzarako: ADDI

<https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/addi-artxibo-digitala>

Zaindegia: zerbitzu honen bidez UPV/EHUko erabiltzaileek tamaina handiko fitxategiak truka ditzakete, bai unibertsitateko beste kide batzuekin, bai Interneteko edozein



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

erabiltzailerekin.

<https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/zaindegi>

k. IRI eta Ikertzailei arrera egiteko pertsonak

Gerardo Mendazona (Hezkuntzan) gerardo.mendazona@ehu.eus

Marivi Corres (Kiroletan) mariavisitacion.corres@ehu.eus